

Karabelen aktibitateak, 'Belkara' auzo elkarteak antolatuta

■ Mus eta Tute txapelketak, larunbat eta igande honetan: 15:30etan ■ Krossa, datorren asteburuan (abenduak 16) ■ Umeentzat pintura eta idazketa lehiaketak ere badira.



Pintura ikastaroa Karabelen. Urrian hasita, 'Belkara' auzo elkarteak hiru hilabeteko ikastaroa antolatu du.

KARABELGO *Belkara* auzo elkarteak urtero antolatzen ditu zenbait aktibitate, urte garai honetan. Orain dela hiru urte hasi ziren egiten pintura lehiaketa, idazlan lehiaketa, krossa eta abar; batez ere herriko gaztetxoei begira.

IKASTETXE ETA CD HERNANI-REKIN

Belkara auzo elkarteak proba batzuk ikastetxe eta Club Deportibo Hernanirekin elkarlanean antolatzen ditu. Ikastetxeekin batera egiten duena da idazlan lehiaketa. Aurten Hernaniko monumentu arkitetnikoen gainean idatziko dute gure gaztetxoek. Idaz-

lanak ikastetxe guztietan egiten dira eta ikastetxe bakoitzeko onenen artean erabakitzen du auzo elkarteak izendatutako epai-mahaiak. Lanak euskeraz eta erderaz izaten dira. Iaz, 40 idazlan inguru pasa ziren ikastetxeetatik finalera. Euskeraz, Itsaso Rodriguez izan zen irabazlea; eta, erderaz, Laura Montejon.

Pintura lehiaketa Karabelen bertan egiten da. Abenduaren 15ean (larunbata) eguerdian, egingo da. Iaz, Gorka Asia izan zen onena.

Krossa CD Hernanirekin batera antolatzen du *Belkara*. Iaz, benjaminetatik be-

teranoetara, 210 korrikalari atera ziren: lehenengo urtean baino jende gehiago.

MUS ETA TUTE TXAPELKETAK

Mus eta Tute txapelketak dira Karabelgo programazioaren aurreneko aktibitateak. Mus txapelketa larunbatean da, abenduaren 8an, arratsaldeko 15:30etan. Partidak auzo elkarteak *kasetan* jokatu-ko dira. Joan den urtean, Anjel eta Constantino izan ziren txapeldunak.

Tute txapelketa, berriz, igandean da, leku eta ordu berean. Iaz, Manolo-Rikardo parejak irabazi zuen.

KROSSA

Kross zirkuitoa 2.075 metrokoa da, baina kategoria bakoitzak bere distantzia egingo du.

Apuntatzeko, datorren astelehenetik aurrera auzo elkarteak egoitza, 17:00etatik 20:00etara, eta egunean bertan ere bai. Karrera goizeko 10:30etan hasiko da.

LAGUNTZAILEAK

Ekitaldia Belkara auzo elkarteak antolatu eta Udalaren babesa du. Laguntzaile berezia: *Induscreen* serigrafia. Horretaz gain, herriko beste 60 firma komertzialen laguntza ere jaso du. □

'Konstituzio eguna, lan eguna'

GAUR, abenduaren 6a da, Espainiako Konstituzioaren eguna. Nazio Egutegiaren Aldeko Ekimenak gaur lan egun normala egitea proposatu die herritarrei, beren ustez inposatutako jai eguna delako. NEAEk, Pilarika egunean egin zuen bezala, kontzentrazioa konbokatu du gaur eguerdiko 13:00etarako, Gudarien plazan.

Biteri kultur etxean, berriz, *herri eskolak* egingo dira.

Herriko zenbait erakunde eta talde biltzen dituen plataforma horrek abenduaren 3an, Euskera-aren Eguna, egin zuen jai. □

HIRULAUDEN PLATAFORMA

Kontzentrazioa, gaur

HAMABOSTERO bezala, Hiru laurden plataformak kontzentrazioa egingo du gaur. Plataformak kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten hernaniarren askatasuna eskatuko du. □

49ko kinto bazkaria igandean

DATORREN igandean 49ko kintoek meza eta bazkaria dituzte, urteroko ohituran. 12:45etan meza Salesianoetako kapilan eta 14.00etan bazkaria Oianumen. Hernani eta inguruko kintoak biltzen dira. Izena emateko, deitu telefono hauetara: 943-551371 (Agustin); 943-554845 (Seve). □



■ FUTBOLA - GORENGO MAILA

Tolosara, liderrari hortzak erakustera joango da gaur Hernani

■ Partidua gaur da, 15:30etan, Tolosan ■ Hernaniarrak 11garren dira dagoeneko.

GORENGO mailako taldeak, bi partidu oso zailak jokatu ditu gaur eta datorren igandean. Gaur, liderraren kontra ariko da Tolosan, eta datorren igandean hirugarren dijoan Elgoibarren kontra, Zubipen. Hernani 11garren da eta 19 puntu ditu; liderrak baino 10 gutxiago, eta azkenak baino 11 gehiago.

J. LORAN: “PIXKANAKA, GORAKA GOAZ”

Jon Loran entrenatzailea baikor dago taldearen azken aldiko martxarekin “ekipo gaztea degu, eta aurtengoa transizio urtea izango zala bagenekien. Baina, lana ondo egiten ari gera eta uste det gora egingo degula”. Etxeko partiduek duten garrantzia aipatzen du Jonek “ondo ari gera etxetik kanpo; etxean, ordea, nahiko kaxkar aritu gera, nerbioengatik-edo. Lehengo astean 5-0



Hernaniarrak gogor ari dira entrenatzen.

irabazi izanak animoak emateko balio behar du”. Tolosaren kontrako partiduan zein asmo duten galdetuta dio “oso par-

tidu zaila dala badakigu, baina, animo haundiak eman dizkigu azken garaipenak eta irabaztera joango gera”.

■ WATERPOLOA

Hiru taldeek galdu egin dute asteburuan

■ Nahiz eta ondo jokatu ezin izan zuten ez neskek eta ez mutilek irabazi.

HERNANIKO waterpolo taldeek partidu gogorrak zituzten joan den asteburuan. Mutiletan, lehen taldeak *Nautica Portuguesa*leren (iazko liderra) kontra jokatu zuen, Euskal Herriko lehen mailan. Galdu egin zuten

hernaniarrek, baina, ez bereak eman gabe. Emaizta 5-7 izan zen. Aipatzekoa, bizkaitarren atezaina, hernaniarrek aukera asko izanagatik geldiketa ikusgarriak egin baitzituen.

Neskek 8-6 galdu zuten

Santoñaren kontra. Irabazteko moduko partidua zuten, baina, azkenean ezin. Mutilen bigarren taldeak ere galdu egin zuen 10-12 Easoren kontra. Nahiz eta galdu nabarmena da, taldeak jokuan gora egin duena. □

ESKOLARTEKO KIROLA -EMAITZAK

Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deportes

SEGUNDO IZPIZUA 16
TEL. 280188

DONOSTIA

KAFETEGIA - TF. 554162 - HERNANI

Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deportes

Langileko jokalaria ‘tiro librea’ botatzen eta gainerakoak errebotearen zain.

PELOTA	TALDEAK	SASKIBALOIA	TALDEAK	ERRUGBIA	TALDEAK
Alebinak	Elizatxo A 5-Elizatxo B 2	Alebinak. Neskak	Langile A 54 -Oleta 6	Benjaminak	Langile A 2 -Inmaculada 0
Alebinak	Langile B 3-Langile A 5	Alebinak. Neskak	Langile 25-Urumea 34	Benjaminak	Urumea 3-Langile C 0
Alebinak	Urumea 5-Langile C 3	Alebinak. Neskak	Elizatxo 20 -Maria Auxil.0	Benjaminak	Elizatxo B 3-Langile B 1
Infantilak	Langile A 5 - Langile B 1	Alebinak. Mutilak	Mari Ward A 30-Langile B 40	ESKUBALOIA	TALDEAK
HOCKEYA	TALDEAK	Infantilak. Mutilak	Langile 25-Herri Ametsa 28	Alebinak	Urumea 0-Udarregi A 4
Benjaminak	Langile C 2-Langile B 2	Infantilak. Mutilak	Inmaculada 19-Deutsche 26	FUTBOLA	TALDEAK
Benjaminak	Elizatxo 3-Urumea 1			Infantilak	Laskorain 4-Urumea 1

■ MAHAI TENISA - ESTATUKO LIGA

‘Easo-Hernani’ bigarren eta fuerte, igoera faserako bidean

■ Larunbatean 4-0 irabazi dio Burlatari ■ Datorren partidua, abenduaren 15ean.

ASTEBURU ona izan da Hernaniko mahai tenis jokalarientzat. Estatuko Ligan, Easo-Hernanik errez irabazi zion Burlatako taldeari eta lau partidua irabazi zituen: bana-kakoak eta binakakoak. Easo-Hernani taldea Bereziartua, Etxetxo eta Gereñok osatu zuten: nafarrei arnasa hartzen ere ez zieten utzi. Aurrenengo buelta bukatzeko, partidu bakarra falta da eta Easo-Hernani bigarren dago, Estatuko Bigarren mailako Ligan.

Bestalde, Valverde eta Mitxelena At. S. Sebastianekin jokatu eta 4-1 irabazi zuten. Donostiako taldeak lider segi-

tzen du partidurik galdu gabe.

AUTONOMIKOAN 4-2 GALDU

Easo-Hernanik liderraren kontra jokatu eta galdu egin zuen, joan den asteburuan. Abadiñotarren kontra, Txema Armentiak eta Erik Diezek irabazi zuten partidu bana

PROBINTZIALA

Liga probintzialetan hernaniarrak At. S. Sebastianekin jokatu dute. Kalonje, Irastorza eta Martinezek 6-1 galdu zuten Etxadi Aren kontra. Herrero, Santxez eta Garziak, berriz, 5-2 irabazi Etxadi Bren kontra. □

■ HITZ BITAN

✓ XAKEA (HERRIKO TXAPELKETA)

Zingi Zanga jatetxean jokatu dira partidak. Hernaniko xake txapelketa aurrera dijoa. Orain arte partidak bost tabernetan ari ziren jokatzeko: Kitto, Aker, Bodega, Goiz Argi eta Txeman. Txema taberna itxi berri dutenez, Zingi Zangak hartuko dio erreleboa. Beraz partidak taberna hauetan jokatu dira: Kitto, Aker, Bodega, Goiz Argi eta Zingi Zanga.

✓ OIALUME

Ken 7 eta Trakets, gaur arratsaldean. Dantzaldia izango da gaur Oialumen, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Larunbat eta igandean ere bada dantzaldia: Akelarre ariko da arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

✓ PEÑA OTAÑO ELKARTEA

Barrikotea egingo dute bihar zortzi. Peña Otaño elkartearen hilaren 23an egin zuten lehenengo barrikotea. Bigarrena, hilaren 14an izango da. Izena emateko, Peña Otaño elkartetik pasa.

✓ GALARRETA

Promesen Txapelketako finalaurrekoa gaur. Erremontean Agirresarobe-Aizpuruak Zalakain-Zestau III.aren kontra jokatu dute, gaur, jaialdiko bigarren partiduan. Gazteen Txapelketako partidua izango da. □

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Durangoko azkokari buruz arduradun batekin
14:00: Euskal Herriko Bertsolari Txapeleketa. Bilboko saioa osorik.
22:00: Magazin musikala. Iragarkietako musiken jatorria azalduko dute.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
►Taxiak: 943 550093	►Egunez: Correa
►Udaltzaingoa: 943 333288	Antziola 44
►DYA: 943 464622	☎ 943 551933
►Autobusak 943 556662	►Gauetz: Oa
►Anbulatorioa: 943 557750	Usurbil. Lehenengo poligonoa, 1
►Jokalaria anonimoak 943 33110	☎ 943 376076

IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatuak deitu:

658 750896 edo 943 364605 telefonora.

■ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Interesatuak deitu 19:00etatik 21:00etara telefono honetara:

943 33 09 27 (M Jose)